



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 3a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-23/LEY-00001. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-23/MOC-00017. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dagozkion errekonozimendu publikoa eta erreparazioa eman diezazkion Alderdi Karlistari, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia izan zen aldetik. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (13. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-23/LEY-00001. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege proiektua.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2023ko urtarrilaren 30eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«Foru lege honen xedea da bermatzea behar bezala betetzen direla Nafarroako Foru Komunitateko pertsona guztien berdintasunerako eta nazionalitateagatik eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko oinarrizko eskubidea eta giza duintasunarekiko errespetua, printzipio horiek egiaz eta eraginkortasunez bete daitezkeen bizitzaren arlo eta etapa guztietan».

Zioak: Testua sinplifikatzea eta berdintasunerako eskubidea bermatzea legearen helburu nagusi gisa (horretarako baldintzak sustatze hutsaren aldean).

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da bermatzea berdintasunerako eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko oinarrizko eskubidea benetakoa eta eraginkorra izan dadin Nafarroako Foru Komunitatean, bizitzaren arlo eta etapa guztietan.

Foru lege honen helburua da diskriminazio mota oro saihestea, arrazoi hauetako edozein horretarako aitzakiatzat hartzen denean: lurralde edo nazio jatorria eta xenofobia, arraza, jatorri etnikoa edo larruazalaren kolorea, eta edozein arrazakeria mota, antisemitismoa edo antigitanismoa, kasu, hizkuntza edo kultur identitatea, edo etnia- edo arraza-jatorriaren beste edozein ezauzgarri, inguruabar edo adierazpide, egiazkoa nahiz egotzia, nazioarteko zuzenbideko tresnek aitortzen dituztenak.

Horretarako, politika publiko batzuk ezarriko dira, helburu izanen dutenak etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminazioaren aurrean prebentzioa sustatzea eta babesa eta erreparazioa bermatzea, arreta berezia emanez emakumeen eta gizonen berdintasunari eta sexu eta genero aniztasunaren errespetuari, bai eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta irisgarritasun unibertsalari ere; aitortuko da ehun sozialaren prozesuak eta estrategia kolektiboak funtsezko tresna bat direla arrazakeriaren aurkako borrokan, eta Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako borrokan lan egiten duten elkarteak solaskide nagusi gisa legitimituko dira.

Zioak: Oinarrizko eskubideak bermatu beharra dago. Administrazioen betebeharra da hori bermatzea, ez soilik sustatzea.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«2. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa.

Foru lege honen ondorioetarako, tratu-berdintasunaren printzipioa da nazionalitateagatik edo etnia- edo arraza-jatorriagatik inolako diskriminaziorik ez izatea; diskriminazio hori izanik egoera analogo edo antzeko batean dagoen pertsona bati eman zaion edo emanen zaion tratu okerragoa ematea beste bati.

Estatuko nahiz Europako araudian jasotzen diren diskriminazio-mota eta tipologiaik modu berean aplikatuko dira foru lege honetan ere».

Zioak: Testua sinplifikatzea; halatan, estatuko araudian zehatz jasotako kontzeptuak kenduko lirateke, estatuko araudian eta foru lege honetan jasotakoaren artean nahasbiderik gerta ez dadin.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Nafarroako Gobernuak garatu beharreko ekin-tza positiboa uste dugu hobeki dagoela I. titulua-ren barruan (prebentzio eta babes neurriak).

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«Foru lege honen ondorioetarako, honela uler-tuko dira:

Arraza-profila: pertsonak kategoria kultural, fenotipiko nahiz jatorriari buruzkoen arabera bereizteko baliatzen den konstruktuko politiko eta sozial oro.

Arrazializazioa: kategorizazio-prozesu bat, gizakiak identifikatzeko, bereizteko eta desberdintzeko elementu batzuetan oinarritua.

Arrazakeria: talde batek beste bat mendean hartzeko eta gutxiagotzeko sistema, desberdintasunen arrazializazioan oinarritzen dena eta dimen-

tsio pertsonal eta kolektiboaren arabera taxutzen dena. Hainbat ideia, diskurtso eta jardunbideren bidez adierazten da: ikusezintasuna, estigmatizazioa, diskriminazioa, bazterkeria, esplotazioa, eraso eta gabetzea.

Xenofobia: atzerritarrekiko mesfidantza, gorroto eta etsaitasuneko jarrerak, jokabideak eta sentimenduak.

Antigitanismoa: arrazakeria mota espezifikoak, erromani eta ijitoen kontrakoa, arraza nagusitasunaren ideian oinarritua, zeina deshumanizazio eta arrazakeriaren modu bat baita, diskriminazio historiko batek elikatua, besteak beste azalera-tzen dena indarkerian, beldurraren diskurtsoan, esplotazioan eta diskriminazio modurik agerikoenan».

Zioak: Foru legearen artikuluetan zehar aipatu ere egiten ez diren kontzeptuak kentzea.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. tituluko I. kapituluaren hasieran artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«5. bis artikulua. Ekintza positiboa.

Praktikan berdintasuna bermatze aldera, Nafarroako Gobernuak neurri espezifikoak hartzen ahalko ditu, prebenitzeko eta konpentsatzeko nazionalitateagatik eta etnia- edo arraza-jatorriagatik pertsonen modu estrukturalen eragiten dieten egiturazko desabantailak, batez ere diskriminazio interseksionala jasaten duten pertsonen kasuan.

Arestiko paragrafoan adierazitakoaren ondorioz hartzen diren berriazko neurriak ez dira arraza-bereizkeriazko neurritzat hartuko, betiere, horren ondorioz ez badira ezartzen eskubide desberdinak arraza-talde desberdinentzat, eta neurri horiek indarrean jarraitzen ez badute, neurriok zein helbururekin hartu eta helburuok lortu ondoren».

Zioak: Ekintza positiboa jasotzea foru lege honetako prebentzio eta babes neurrien artean, eta testua hobetzea.

7. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta sektore publiko instituzionalak politika publiko eta jarduera administratibo guztietan txertatuko dute berdintasunaren eta nazionalitate, etnia edo arrazagatiko diskriminaziorik ezaren printzipioa».

Zioak: Testua hobetzea, printzipio horiek jasozten direla bermatzeko, baina orain arte jaso ez direlako sententzia ekidinez.

8. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«6. artikulua. Diskriminaziorik ezeko printzipioa txertatzea politika publikoetan.

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta sektore publiko instituzionalak politika publiko eta jarduera administratibo guztietan bermatuko dute berdintasunaren eta etnia edo arrazagatiko diskriminaziorik ezeko printzipioa.

b) Administrazioak arrazakeria eta xenofobia desagerrarazteko hartu behar diren neurri guztiak hartuko ditu.

c) Departamentuen arteko koordinazio-talde bat sortuko da, berdintasunarekiko eta etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminaziorik ezarekiko konpromisoa bermatzeko, zeharkakotasunez».

Zioak: Administrazioaren betebeharra da berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzea. Komenigarria da legean jasotzea zer prozedura baliatu behar den eta zer jarduketa abiarazi behar diren legearen xedea betetzeko.

9. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«6. bis artikulua.

Nafarroako Gobernuak kulturen arteko bizikidetzaren sustatuko du, elkarrekiko errekonozimendua, elkar ulertzea eta elkarren ezagutza bultzatzeko».

Zioak: Funtsezkoa da elkarrekiko errekonozimendua, elkar ulertzea eta elkarren ezagutza lan-tzearen garrantzia jasotzea, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko.

10. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

8. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana taxutuko du Nafarroako Gobernuak. Plana izanen da jarduketaren ardatz nagusia, helburuak eta ildo estrategikoak ezarriko baititu, bai eta hartu beharreko neurriak bilduta, horretarako aurrekontua eta planaren ebaluazioa egiteko gobernantza-eredua ere. Estatuan eta Europar Batasunaren esparruan onesten diren arrazakeriaren aurkako planak gogoan hartuta ezarriko da plan hori, eta 5 urterako berrikusi eta berrituko da.

Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan lan egiten duten antolakundeek eta gutxiengo etnikoetako pertsonen parte-hartze adierazgarria eta nabarmena duten elkarteek plan horren prestaketan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen dutela bermatuko da».

Zioak: Testua hobetzea eta planak jaso beharrekoen artean jasotzea plana betetzearen zenbatespen ekonomikoa eta, halaber, ebaluazioa egiteko gobernantza-eredua.

11. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

8. artikuluko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«8. artikulua. Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planak.

2. Nafarroako Gobernuak behar den bultzada eta laguntza tekniko eta ekonomikoa emanen dizkie toki erakundeei, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko neurriak eta planak gara ditzaten, arrazakeriaren agerpen espezifiko

erantzuteko beren eskumenen esparruan. Plan horiek parte-hartze prozesuen bidez egitea sustatuko da, eta Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ari diren antolakundeek eta pertsona arrazializatuen parte-hartze adierazgarria eta nabarmena duten elkarteek egindako lan kolektiboan oinarrituta».

Zioak: Garrantzitsua da lege honetan jasotzen diren konpromisoak gauzatzeko beharrezkoa den laguntza-mota zehaztea.

12. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikulua 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«3. Nafarroako Gobernuak gizarte-erakundeak bultzatuko eta babestuko ditu, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planak edo/eta jarduera-protokoloak txerta ditzaten etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazio-kasuetan».

Xenofobiaren aipamena egitea, kendu egin baitzen.

13. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikuluko 5. puntua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«5. Nafarroako Gobernuak arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako neurriak prestatuko ditu eta protokoloak ezarriko ditu Administrazio publikoaren barruan, neurriak eta protokoloak sustatuko ditu enpresetan eta erakundeetan, eta laguntza eta aholkularitza emanen dizkie horiek prestatzeko».

Zioak: Administrazio publikoaren barruan protokoloak egitearen garrantzia jasotzea.

14. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikuluari beste puntu bat, 5 bis), gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«5. bis. Nafarroako Gobernuak, Errealitate Sozialaren Behatokiaren bitartez, maiz egiten ditu azterlanak errealitate eta bizikidetzaren multikulturala ezagutzeko, Nafarroako gizartearen arrazakeria eta

xenofobia identifikatzeko eta arlo horretako politika publikoak aztertzeko».

Zioak: Errealitate Sozialaren Behatokiak errealitate eta bizikidetzaren multikulturalari buruzko informazioa bildu behar du eta maiz egin behar dira errealitate horiei buruzko diagnostikoak, modu bizkor eta eraginkorrean erantzuteko jarduketara zehazten bidez.

15. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, ez da bidezkoa inolako kuotarrik sartzea. Are gutxiago ez baldin badakigu zeri buruz ari den "foru administrazio publikoak erabakiak hartzeko dituen guneetan" esatean edo "ordezkaritza egokia" bezalako termino subjektibo baten inguruan ezartzen denean.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«1. Nafarroako Gobernuak arrazakeriari eta xenofobiari buruzko prestakuntza eta sentibilizazioa emanen die administrazio langileei, eta arreta berezia emanen zaie prebentzio, detekzio, arreta, asistentzia eta suspertze lanak egiten dituztenei honako arlo hauetan: osasuna, hezkuntza, lan mundua, gizarte zerbitzuak, justizia eta segurtasun kidegoak, kirola eta aisia, eta komunikazioa».

Zioak: Xenofobia sartzeko prestakuntzaren arloan, eta testua hobetzea, "profesionalen" kontzeptuak ez baitu argi uzten nori buruz ari den.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«1. Kontratu publikoen plegu arautzaileetan ezartzen ahalko dira kontratuaren xedearekin lotuta dauden eta neurri batzuk ezartzea baloratzen duten adjudikazio irizpideak, neurri horien bidez aniztasuna modu positiboan ikusgarri egiten bada,

eta etnia- edo arraza-jatorri minoritarioko beste nazionalitate batzuetako pertsonen gaitasunak aitortzen badira, baita arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako detekzio, prebentzio eta jardun neurriak eta protokoloak ere.

Era berean, kontratuak betetzeko baldintza bereziak ezartzen ahalko dira, baldin eta kontratuaren xedearekiko lotura badute, aniztasuna modu positiboan ikusgarri egiteko eta etnia- edo arraza-jatorri minoritarioko edo atzerriko pertsonen gaitasunak aitortzeko neurriekin lotuta, bai eta arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako detekzio, prebentzio eta jardun neurriak eta protokoloak betetzearekin ere.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo hari lotutako edo haren mendeko organismo eta entitateek deitzen dituzten dirulaguntzen edo bestelako laguntza publikoen oinarri arautzaileetan, haiek emateko irizpide objektiboak gehitzen ahalko dira, horien bidez baloratzeko eskatzaileek arrazakeriaren aurka borrokatzeko planak ote dituzten».

Zioak: Testua hobetzea, eta exekuzio-baldintza bereziak ezartzeko kontratuak lotura izan beharra finkatzea.

18. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

13. artikulua 4. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«4. Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta funtzionamendua foru dekretu baten bidez zehaztuko da arauz. Betiere, honako hauek batzordeko kide izanen dira:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.
- b) Nafarroako toki entitateak.
- c) Nafarroako Arartekoa.
- d) Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ari diren elkarteak».

Zioak: Nafarroako Arartekoaren ordezkariaren bat egon beharra jasotzea, eta "parte-hartze adierazgarria eta nabarmena" duten elkarten aipamena kentzea, kontzeptu hori oso subjektiboa delako.

19. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

13. artikulua 5. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«5. Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Nafarroako Kontseiluak foru lege honetan esleitutako eginkizunak beteko ditu, Arartekoaren eskumenak gorabehera. Horretarako, lankidetzahitzarmenak egiten ahalko ditu Arartekoarekin, egoki iritzitako lankidetzamekanismoak ezartzeko».

Zioak: Kontseiluaren eta Nafarroako Arartekoaren arteko lotura argia ezartzea, Arartekoaren eginkizuna delako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki erakundeen jarduna gainbegiratzea, Nafarroako herritarren eskubideak eta askatasun publikoak babestu eta hobetzeko.

20. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. tituluko I. kapituluaren barruan 13.bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

«13. bis artikulua. Estatistikak eta azterlanak.

1. Foru lege honetan jasotzen diren xedapenak betearaztearen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak azterlanak, oroitidazkiak edo estatistikak prestatuko ditu, tratu-berdintasunarekin lotutako auziez betiere, eta nazioarteko estandarrekin bat etorritik, nazionalitateagatik eta arrazado etnia-jatorriagatik diskriminatzearen arrazoiak, zabalpena, bilakaera, izaera eta ondorioak hobeki ezagutze aldera.

2. Nafarroako Foru Komunitatean dauden segurtasun indar eta kidegoek jarri diren salaketen diskriminazio-jiteari buruzko datuak bilduko dituzte, eta segurtasuneko estatistika-sistemetan prozesatuko dituzte, eta argitaratu egingen dira, izaera pertsonaleko datuen babeserako oinarritzko eskubidea erabat errespetatuta».

Zioak: Politika publiko egokiak ezartzeko, nahitaezkoa da analisi zorrotza egitea, erkidegoaren errealitateari buruzko datuetan oinarrituta.

21. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«1. Nafarroako Gobernuak berdintasun printzipioan eta nazionalitateagatik eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko prestakuntza, ezagutza eta ulermena bultzatuko ditu irakaskuntzaren bidez.

Halaber, Ijitoen Herriaren historiari eta kulturari buruzko ezagutza handitzeko eta sakontzeko jarduketak garatuko dira; hartara, Espainian ijitoen kulturaren onarpen positiboa sustatuko da ekimen pedagogikoen bidez, ijitoen elkarten mugimenduekin lankidetzan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta ikastetxeek neurriak abiaraziko dituzte nazionalitateagatik eta arraza- edo etnia-jatorriagatik eskola-segregazioa lehengoratzeko, bai zuzeneko bai zeharkako mekanismoak baliatuta.

3. Administrazioak behar bezalako arreta emanen die foru lege honetan adierazitako arrazoiren bat dela-eta edo ikaskuntza-hizkuntzaren ezezagutza larriagatik hezkuntza-laguntzako premia berezia duten ikasleei, edo euren taldeetan absentismoko nahiz eskola-uzteko portzentaje handiagoak ematen direla jakiten bada. Arreta berezia emanen zaie neskatoei eta nerabeei.

4. Ikastetxeetako langileentzako prestakuntza eskaintzan prestakuntza espezifikoa egonen da kultura aniztasunari buruz, arrazakeriaren aurkako jarrerari buruz eta ikasleak eta migratuak Nafarroako hezkuntza-sisteman txertatzeari buruz».

Zioak: Testua hobetzea, eta ECRIren gomendioetan aldiro aipatzen diren hainbat auzi sartzea; esate baterako, eskola-absentismoaren aurkako borroka eta hizkuntza ikasteari arreta berezia jarri beharra, eskola-inklusioa hobea izateko nahitaezko urrats gisa.

22. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

15. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«1. Nafarroako Gobernuak foru estrategia bat abiaraziko du, lan-esparruan nazionalitateagatik eta arraza- edo etnia-jatorriagatik diskriminazioa eta laneko jazarpena desagerrarazteko eta diskri-

minazio mota hori errazago pairatzen ahal duten pertsonen enplegu-tasa eta lan-baldintzak hobetzeko politika publiko zehatzak jasoko dituen. Estrategia horren helburu eta neurri bakoitzarekin batera, lortu nahi diren berariazko balioak, erreferentzia-puntuak eta adierazleak agertuko dira».

Zioak: Testua hobetzea eta esparru horretako betetze-maila ebaluatzeko adierazleak jasotzea, ECRIren gomendioekin bat.

23. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«Osasun arloko departamentu eskudunak hartu behar diren neurriak hartuko ditu, bermatzeko ez dela foru lege honetan aurreikusitako arrazoiak direla-eta inolako diskriminaziorik gertatzen osasun prestazio eta zerbitzuak baliatzean. Zehazki:

a) Neurriak hartuko dira ziurtatzeko ez dela nazionalitateagatik eta arra- nahiz etnia-jatorriagatik diskriminaziorik gertatzen osasun-arretan, osasun mentaleko arreta barne.

b) Osasun arloko jarrera arrazistak eta xenofoboak prebenitzeko ekintzak eginen dira hainbat hizkuntzatan (gidak eta prestakuntza-materiala barne).

c) Osasun-premia berariazkoak dauzkaten populazio-taldee zuzendutako ekintzak sustatuko dira.

d) Osasunerako eskubide unibertsalari, tratu berdintasunari eta diskriminazio ezari buruzko prestakuntza emanen zaie osasun arloko eta kudeaketako langileei».

Zioak: Testua hobetzea, eta populazio-talde jakin batzuetarako berariazko ekintzak abiatu beharra jasotzea.

24. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

18. artikuluari 3. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«3. Arestiko paragrafoetan ezarritakoaren ondorioetarako, foru erkidegoan ezartzen diren gizarte-zerbitzuen arloko planen eta programen

bidez lehentasunezko arreta emanen zaie talde bereziki zaurgarriei; batik bat, neskatoei eta emakumeei. Plan horietan lanbide heziketako programak sartuko dira, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspegia sustatuko dutenak, diskriminazio interseksionaleko egoerak identifikatzeko laguntzeko».

Zioak: Taxutze- eta ezartze-printzipio horiek jasotzea Nafarroan arlo horri dagokionez taxutzen diren planetan.

25. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

19. artikuluko 2. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, apartatu horretan jasotzen dena hobe da babes neurrien kapituluan jasotzea.

26. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

19. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«1. Foru lege honen ondorioetarako, ez da justifikazio objektiborik gabe erabiliko nazionalitatean edo etnia- nahiz arraza-ezaugarrietan oinarritutako profilik».

Testua hobetzea, Espainian indarrean dagoen legediarekin bat.

27. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«2. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, hedabideen eta informazioaren teknologien enpresen independentzia oztopatu gabe, sustatuko du horietan har daitezen kode deontologikoak eta autoerregulaziorako akordioak, nazionalitatean edo arraza- nahiz etnia-jatorrian oinarritutako aurreiritzi diskriminatzailek eta estereotiporik gabekoak».

Zioak: Testua arintzea.

28. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

22. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«22. bis artikulua. Eremu soziokomunitarioko neurriak.

Nafarroako Gobernuak neurriak bultzatuko ditu edo/eta toki entitate eta elkarteak finantzatuko ditu, elkarren ezagutza sustatzeko eta errazteko proiektuak gara ditzaten».

Zioak: Jarduketa-eremuen barruan eremu soziokomunitarioa sartu behar da, oso garrantzitsua delako bertan lan egitea; hortaz, legean hori jaso beharra dago.

29. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

«23. artikulua. Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko arreta.

Departamentu eskudunak administrazioan gerta litezkeen jokabide arrazista eta xenofobo guztiei buruzko informazioa biltzeko behar diren tresnak sortuko ditu, etnia- edo arraza-jatorriagatiko diskriminazioaren inguruan arreta integrala bermatuko du genero-ikuspegi interseksionalez, eta esku hartzeko neurriak artikulatuko ditu biktimen prebentzio, detekzio, babes eta erreparaziorako, eta aholkularitza juridikoa eta arreta psikosoziala emanen ditu».

Zioak: Tresna horiek sortzeko konpromisoa jasota dator planetan, eta sortzen ari dira, baina gure ustez komenigarria da konpromiso hori legean jasotzea.

30. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23. artikuluari paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Arreta-zerbitzu honek protokolo integral bat prestatuko du arrazakeria eta xenofobia delituekin lotutako biktimeentzat, helburu nagusia izanen duena: delituen salaketak jasotzea, sare soziale-tan egiten direnak barne; biktimei arreta, babesa

eta orientazioa ematea poliziaren arloan eta larrialdiei ematen zaien arretaren arloan; arrazakeriaren eta xenofobiaren biktimak elkartzen dituzten erakunde edo elkarteekin koordinatzea».

Zioak: Babes-mekanismoen kapituluan jasotzea erreferentzia hau, lehen politika publiko sektorialen kapituluan zegoena.

31. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

24. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«24. artikulua. Ofiziozko jarduketak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Arartekoak ofizioz jardun ahalko dute, inolako salaketarik edo kexarik jaso ez badute ere, tratu-berdintasuna eta nazionalitateagatiko edo arraza- nahiz etnia-jatorriagatiko diskriminaziorik eza bermatzeko helburua dutelako».

Zioak: Testua hobetzea jarduketa ofiziozkoa izatea izan dadin artikuluan, eta ez eskubideen defentsa, hori foru lege honetako 1. artikuluan datorrelako jasota jada.

32. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

25. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, apartatu horretan jasotzen dena hobe da babes neurrien kapituluan jasotzea.

33. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«Nafarroako Gobernuak, Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan lan egiten duten elkarteekin eta lanbide elkargoekin lankidetzan, arrazakeriari eta xenofobiari buruzko prestakuntza berariazkoa emanen die erkidegoko eragile juridikoei».

Zioak: Testua hobetzea, eta zenbait eragile juridiko kide dituzten lanbide elkargoekiko lankidetzatza jasotzea.

34. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

«Nafarroako Gobernuak neurri batzuk hartuko ditu laguntza emateko nazionalitateagatiko eta arraza- edo etnia-jatorriagatiko diskriminazioaren arloan lanean aritzen diren gizarte entitateei, sentibilizazio-, prebentzio- eta prestakuntza-lanak zein gizarte-salaketako lanak egiten dituztenei.

«Ildo horretan, sustatu egingen dira arrazakeriaren aurkako jarrera eraldatzailea eta eraginkorra ezartzen laguntzeko ekintzak gauzatzen dituzten entitate sozialen lana eta entitate horiek arrazakeriaren aurkako esku-hartze sozial intersektionalarekin hartua duten konpromisoa».

Zioak: Testua hobetzea.

35. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

29. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dugu ulertzen metodologia zehatz hori (mentoretza) sustatzea eta baloratzea zer dela-eta sartzen den babes neurrien kapituluan.

36. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

30. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua arintzea, uste dugulako hori bera 28. artikuluan ezartzen dela. Gure ustez, parte-hartzeko eremuei buruzko erreferentzia jada jasota dago Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Nafarroako Kontseilua abian jartzen den unetik beretik.

37. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. titulua (31., 32. eta 33. artikulua) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dugu bat egiten arrazakeriaren eta xenofobiaren ondorioak justizia errestauratiboaren mekanismoen bidez soilik jorratu behar direlako

ideiarekin. Prozesu horiek arrazakeriaren eta xenofobiaren esparruan bestelako gatazka bartzuen modu bertsuan gertatu behar dira, baina erreferentzia hori egiten baldin bada ulertaraz liteke hori dela arazo horri aurre egiteko modu bakarra.

Halaber, ez dugu uste beharrezkoa denik espresuki aipatzea ez auzitegi barruko bitartekaritzaz, ez auzi prozesuak nazioarteko organismoetan bultzatzea.

38. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Titulu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«II. TITULUA bis. Zehapen-araubidea.

30. bis artikulua. Zehapen-araubidea.

Tratu-berdintasunerako eta nazionalitateagatik edo etnia- nahiz arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko eskubidea zeharo babesten dela bermatzeko, Tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko uztailaren 12ko 15/2022 Lege integralean ezarritako zehapen-araubidea aplikatuko da Nafarroan, lege horretan ezarritako moduan».

Zioak: Zehapen-araubide bat jasotzea, estatu-ko araudi analogoan ezarritakoaren ildo berean.

39. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

«Azken xedapenetan lehenbizikoa bis. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Nafarroako Kontseilua.

Foru lege hau onesten denetik gehienez ere urtebeteko epean, organo eskudunak Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Nafarroako Kontseilua sortzea xedatuko du».

Zioak: Arrazoizko denbora-plangintza ezartzea.

40. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. tituluko I. kapituluaren izena aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

«I. KAPITULUA. Arrazakeria eta xenofobia prebenitzeko mekanismoak».

Zioak: Kapituluaren titulutik kendu zen parte – xenofobia – jasotzea.

41. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. tituluko II. kapituluaren izena aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke:

«II. KAPITULUA Arrazakeria eta xenofobia prebenitzeko politika publiko sektorialak».

Zioak: Testua hobetzea.

42. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

«Giza duintasunarekiko errespetua eta berdintasuna eta diskriminazio eza oinarritzko printzipio gisa jasota daude Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, zeina Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an onetsi baitzuen. Halatan, arrazagatiko diskriminazio modu guztiak desagerrarazteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa (1965) erreferentziako esparru espezifiko da diskriminazio mota horretarako.

Zioak: Giza duintasunarekiko errespetua sartzeari Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko oinarritzko printzipioen artean, eta testua hobetzea.

43. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren hirugarren paragrafoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua hobetzea.

44. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren laugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

«Europako Kontseiluaren esparruan, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa jasota dago Erroman, 1950eko azaroaren 4an, onetsi zen Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen babeserako Hitzarmenaren 14. artikuluan. Hala ere, Arrazakeriaren eta Intolerantziaren kontrako Europako Batzordea, zeina Kontseiluak berak sortu baitzuen, giza eskubideen arloko gainbegiratzeko organo independentea da, arrazakeriaren eta intolerantziaren arloko auzietan espezializatua».

Zioak: Testua hobetzea, Arrazakeriaren eta Intolerantziaren kontrako Europako Batzordearen ezaugarri nagusi bat –haren izaera independentea– jaso bidenabar.

45. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren bosgarren eta seigarren paragrafoak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua hobetzea.

46. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren paragrafoak aldatzea. Testu hau izanen da:

«Europako Parlamentuak ere sarritan adierazi du beharrezkoa dela diskriminazio, gorroto eta intolerantzia mota ororen aurkako borroka areagotzea. 2022ko azaroaren 10ean azkeneko aldiz, ebazpen bat onetsi baitzen arraza-justiziari, diskriminazio ezari eta arrazakeriarik ezari buruz, zeinean azpimarratu baitzen premiazkoa dela Batasunak ikuskera irmo, inklusibo, integral eta polifazetiko bat garatzea eta aplikatzea, arrazakeria eta diskriminazio mota ororen aurka eraginkortasunez jarduteko».

Zioak: Testua hobetzea. Ebazpen ugari onetsi dira auzi hau dela-eta; hortaz, egokiena da horietako azkena aipatzea, denen artean hautatu behar ez izateko. Gainera, ez da jasota ageri zazpigarren paragrafoko 2022ko uztailaren 22ko Ebazpena.

47. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren hamabosgarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

«Gure erkidegoan, Nafarroako Ijitoen Arreta Integralerako lehendabiziko Planaren ondotik (2011-2014) Ijitoen Garapenerako Estrategia (2019-2022) heldu zen, aitzindaria izan zena antigitanismoaren aurkako borroka helburu estrategikoen artean jasotzeko dagokionez. Ijito Herriaren Berdintasun, Inklusio eta Parte-hartzearen aldeko Estrategia Nazionalarekin (2021-2030) koordinatuta, honako arlo hauek jorratzen ari dira nagusiki: biktimentzako arreta, prestakuntza foru administrazioaren maila guztietan, emakumezko ijitoek jasaten duten diskriminazio interseksionala, eta datuen beharra egoera modu egokian aztertu eta ijitoen kontrako arrazakeriaren eta haren ondorioen kontrako proiektu eta politika publikoak diseinatzeko».

Zioak: Testuan jasotzea Nafarroan abiarazi zen lehendabiziko ekimena, bai eta Ijito Herriaren Berdintasun, Inklusio eta Parte-hartzearen aldeko Estrategia Nazionalarekin (2021-2030) koordinatu beharra ere.

48. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren hamaseigarren, hamazazpigarren eta hemezortzigarren paragrafoak aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen da:

«Nolanahi ere, antigitanismoaz harago joan beharra dago eta bere osotasunean heldu behar zaio Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren auziari, bere izaera propioa duelako eta gizartean errotuta dagoelako. Horretarako, foru erkidegoak hainbat tresna ezarri ditu, eta horien artean Nafarroan Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka borrokatzeko 2021-2026 aldirako Plana nabarmendu behar da»

Zioak: Testua hobetzea, Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako planaren izendapen zehatza eta iraupena jaso bidenabar.

49. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko hogeigarren paragrafoa kentzeko zuzenketa.

«Arrazakeriak botere egitura baten gainean du oinarria, eta horrek ematen die esanahia aurreiritzi sozialei; horrexegatik, instituzionala eta egiturazkoa da, presente dagoelako gizartean ezartzen diren balio eta harremanen, bizitzaren eta kulturaren alderdi guztietan. Eskubideak baliatzea eta ondasun eta zerbitzuak eskuratzea galarazten duten lege edo erregelamenduzko xedapenen bitartez agertzen da. Horrexegatik, erantzuna instituzionala izan behar da beti».

Zioak: Testua hobetzea.

50. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren hogeita batgarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

«Arrazakeriak pertsonen arteko dimentsioan jarduten du eta eguneroko egintza indibidual eta/edo kolektiboetan agertzen da. Portaera horiek iruditeria sozialean ugari diren aurreiritzi eta estereotipo historiko batzuekin elikatzen dira, eta horiek, azkenean, legitimatzen dituzte beste talde sozial batzuei buruzko sinesmenak, arrazan oinarritutakoak».

Zioak: Foru erkidegoa ez da nor giza arrazak egon badaudela ukatzeko, eta testua hobetzen da bidenabar.

51. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko hogeita bederatzigarren paragrafoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua hobetzea.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00017. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dagozkion errekonozimendu publikoa eta erreparazioa eman diezazkion Alderdi Karlistari, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia izan zen aldetik.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak 2023ko otsailaren 28an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita dagozkion errekonozimendu publikoa eta erreparazioa eman diezazkion Alderdi Karlistari, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia izan zen aldetik. Honako hau du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez Alderdi Karlistari dagokion aitortza publikoa eta erreparazioa egin diezaion –administrazio-egintza egokiaren bidez–, 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietako biktima politiko nagusia baita, eraso eskuin

muturreko zenbait kidek egin baitzuten, Gobernuaren instantzia batzuen laguntzarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez “Memoria toki” gisa seinalezta dezan Jurramendin 1976ko maiatzaren 9ko gertakarietan eraildako bi pertsonen omenez –Ekintza Katolikoko Langile-ermandadeko kide Aniano Jiménez Santos eta Ricardo García Pellejero– Iratxe monasterioaren ondoan paratutako monolitoa.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du desklasifikatu dezan 1976ko maiatzaren 9an Jurramendin (Nafarroa) izandako gertakarietako lotutako dokumentazio oro”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-23/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamenari aurkezturiko zuzenketa. Proposamen hori 2023ko otsailaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Gaztelaniazko testuan, 8. artikuluko 7. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«7. Ocupará la presidencia del Parlamento quien obtenga el voto favorable de la mayoría absoluta de las personas parlamentarias forales, electas».

Zioak: "Parlamentarios y parlamentarias electas" adierazpidean ez da komunztadura zaintzen. "Parlamentarias electas y/o parlamentarios electos" ere izan liteke.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8.10 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«10. Baldin eta hirugarren bozketan berdinketak bere horretan badirau, hautaketa horren aurreko hauteskundeetan ordezkari gehien lortu dituen

alderdiko edo koalizioko hautagaiaren alde eginen da, eta hura aldarrikatuko da lehendakari».

Zioak: Berdinketa hautagai bozkatuenaren alde egitea hobeki egokitzen zaio Parlamentuaren ordezkartza-izaerari eta izaera demokratikoari.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«1. Lehendakari hautetsia aldarrikaturik, bi lehendakariordeak batera hautatuko dira.

2. Hautaketa horri aplikatuko zaio aurreko artikuluko 2.etik 6.era bitarteko apartatuetan ezarritakoa.

3. Boto gehien eskuratzen duten bi hautagaiak izanen dira lehen eta bigarren lehendakariordeak, hurrenez hurren.

4. Berdinketarik gertatuz gero, hautagairik zaharrenaren alde eginen da».

Zioak: Aldatzen duen egungo arauaren testua demokratikoagoa da.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«3. Berdinketak ebazteko, 8.10 artikuluan ezarritako irizpideari jarraikiko zaio, non eta lehendakaria berdinketa hausteko sistema horrekin hautatua izan den; halakoetan, ordezkari-kopuruan

hurrengo den alderdiko edo koalizioko hautagaia aldarrikatuko da».

Zioak: Berdinketa hautagai bozkatuenaren alde egitea hobeki egokitzen zaio Parlamentuaren ordezkartza-izaerari eta izaera demokratikoari.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«2. Berdinketak ebazteko, 8.10 artikuluan ezarritako irizpideari jarraikiko zaio, non eta lehendakaria berdinketa hausteko sistema horrekin hautatua izan den; halakoetan, ordezkari-kopuruan hurrengo den alderdiko edo koalizioko hautagaia aldarrikatuko da».

Zioak: Berdinketa hautagai bozkatuenaren alde egitea hobeki egokitzen zaio Parlamentuaren ordezkartza-izaerari eta izaera demokratikoari.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

34. artikuluko 2. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Parlamentuak ez du bere gain hartu behar talde parlamentario bat osatzen duten alderdi politikoaren eta/edo erakunde politikoaren egoerak konpontzea. Bestalde, "talde politiko" terminoa nahasgarria da, ulertu ahal baita hauteskundeetara aurkeztu zen talde politiko gisa edo alderdien koalizio baten edo hauteskunde-koalizio baten parte den talde politiko gisa.

Talde parlamentario batetik zenbait kide kanporatuz gero, ez dira argi geratzen taldeko kideen gutxiengo batek, antza, eragin lezakeen kanporaketarako baldintzak. Are gutxiago hauteskunde-koalizio bat bada.

7. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

34. artikuluko 4. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Parlamentuaren organoetako kargu edo postuak betetzeko foru parlamentariak organo horietan eginiko bozketa bidez hautatzen dira.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

34.1. artikuluari c) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«c) Seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera ustezko transfugismo kasu batean erortzen diren foru parlamentariak; halakoetan, hautagaitza aurkeztu zuen subjektu politikoaren edo, koalizioen kasuan, hura hautagaitzan sartzea proposatu zuen alderdi politikoaren legezko ordezkariak helaraziko dio Mahaiari jakinarazpena».

Zioak: Artikulu hori osatu beharra dago, estatuan sinatu den Transfugismoaren aurkako Ituna aplikatzeko.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

36. artikuluko 1. puntua aldatzeko zuzenketa.

Honako hau esan orde: "talde hori bi kide baino gutxiagorekin gelditzen bada", honako hau esan behar du: "talde hori hiru kide baino gutxiagorekin gelditzen bada".

Zioak: Arauak jada aintzat hartzen du egoera hori. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu berri baterako proposamenak honako hau ezartzen du 32. artikuluan 1. apartatuan: Talde parlamentario bat eratzeko, beharrezkoa da gutxienez hiru foru parlamentari biltzea.

Horrenbestez, talde parlamentario bat bi kide edo kide bakarrarekin geratuz gero, desegin eginen litzateke, irizpide orokorra aplikatuta, eta parlamentari horiek talde mistoko kide izatera pasako lirateke. Betiere foru parlamentarien elkarte bat osatzeko aukerarekin, bi kide izanez gero, 38. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

10. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

38.5 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«5. Aurreko artikuluan bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira honako hauek: foru parlamentarien elkarteetako parlamentariak batzordeetara joatea, bilkura bakoitzeko

mintzaldien iraupena eta Osoko Bilkuraren saio bakoitzeko interpelazioen, ahozko galderen nahiz mozioen kopurua».

Zioak: Talde mistoko kideen parte-hartzea daukaten ordezkariaren arabera izan behar da beren jarduketa guztietan.

11. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

54.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«3. Lehendakaria hautatzean berdinketa gertatzen baldin bada, hautaketa horren aurreko hauteskundeetan ordezkari gehien lortu dituen alderdiko edo koalizioko hautagaiaren alde egingen da. Irizpide berari jarraikiko zaio lehendakariordea eta idazkaria hautatzeko, albo batera utzita sistema horren bidez hautatuak izan diren alderdi edo koalizioko hautagaiak».

Zioak: Berdinketa hautagai bozkatuenaren alde egitea hobeki egokitzen zaio Parlamentuaren ordezkari-izaerari eta izaera demokratikoari.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

77. artikuluko 4. puntua aldatzeko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan, «Diputación Permanente» esaten duenean, «Comisión Permanente» esan behar du.

Zioak: Hori da izendapen zuzena.

13. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

101.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«2. Ondoren, aldeko txanda irekiko da, eta, gero, aurkako txanda. Txanda horietako bakoitzean mintzatu ahalko dira, zein bere ordezkariaren bidez, talde parlamentario guztiak, salbu eta aurreko apartatuan aipatzen den defentsatxandan halakotzat mintzatu dena edo direnak. Talde parlamentarioen mintzaldien hurrenkera talde bakoitzak dituen parlamentariaren kopuruari begira ezarriko da, gutxien dituenetik hasi eta

gehien dituenarekin bukatzeko. Talde mistoaren ordezkariak lehenak izanen dira mintzatzen».

Zioak: Espainiako parlamentu ia guztietako erregelamenduetan horrela egiten da.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

146. artikuluari bigarren paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

«Nafarroako Gobernuaren euskarri diren talde parlamentarioek aurkeztutako foru-lege proposamenak ezin izanen dira baliatu foru-lege proiektuei exigitzen zaizkien txostenak eta aurrekariak saihesteko».

Zioak: Aldiro gertatzen diren eta legeen segurtasun juridikoaren eta arauen kalitatearen aurka doazen lege-iruzurrak ekiditeko.

15. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

196. artikulua 3. araua aldatzeko zuzenketa. Honelaxe geldituko da:

«3. Lehendakariak erabakitako etenaldiaren ondoren, hala eskatzen duen talde parlamentario bakoitzaren ordezkari bat mintzatuko da hogeita hamar minutuz. Talde parlamentario mistoa osatzen duten kideei dagokien hitz egiteko denbora berdintasunez banatuko da haien artean, eta zilegi izanen dute elkarri lagatzea hitz egiteko denbora. Talde parlamentarioek mintzatzeko izanen duten hurrenkera izanen da haietako bakoitzaren taldekide kopuruaren arabera, txikienetik hasi eta handieneraino, eta talde mistoa beti izanen da lehena».

Zioak: Espainiako parlamentu ia guztietako erregelamenduetan horrela egiten da.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

208. artikuluko 2. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zentzugabea da talde baten interpelazioan besteek ere iritzia ematea.

17. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

226.2. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

«b) Bilkura berriz hasten denean, mintzalditxanda bat irekiko da, zeinean talde parlamentario guztiak mintzatu ahalko baitira, zein bere ordezkarriaren bitartez. Talde parlamentarioen mintzaldien hurrenkera talde bakoitzak dituen parlamentarien kopuruari begira ezarriko da, gutxien dituenetik hasi eta gehien dituenarekin bukatzeko. Talde mistoaren ordezkariek lehenak izanen dira mintzatzeko».

Zioak: Espainiako parlamentu ia guztietako erregelamenduetan horrela egiten da.

18. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

226.2 artikuluko g) letra gehitzea, honako testuarekin:

«g) Talde parlamentario mistoko ordezkarien mintzaldien denbora taldeko kideen artean banatuko da, taldearen barne-funtzionamendurako arauak jarraituz. Desadostasunik balego, Mahaiak, Eledunen Batzarraren erabakiaren ondoren, ebatziko du, talde mistoko alderdi edo elkarte bakoitzaren zenbakizko garrantziaren arabera».

Zioak: Espainiako parlamentu ia guztietako erregelamenduetan horrela egiten da.

19. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

227.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«2. Gobernu kide baten mintzaldiarekin hasiko da eztabaida, eta horren ondoren talde parlamentario bakoitzaren ordezkariek bata-bata mintzatu ahalko dira, handienetik hasi eta txikieneraino, gehienez hamabost minutuz. Talde Parlamentario Mistoko kideak izanen dira lehenak mintzatzeko, eta denbora osoa haien artean banatu ahalko dute, kideetako edozeinek hala eskatzen badu».

Zioak: Espainiako parlamentu ia guztietako erregelamenduetan horrela egiten da.

20. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

227.7 artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako hau izanen da:

«c) Azkenik plan edo programaren testu osoa, onetsitako erabaki proposamenak barne direla, osoko bozketa bakarrean bozkatuko da. Eraitza aldekoa baldin bada, Parlamentua igorri zaion planarekin edo programarekin ados dagoela ulertuko da. Ezezkoa baldin bada, ados ez dagoela ulertuko da».

Zioak: Botoa aldekoa edo aurkakoa izateak ez dio planaren edukiari eragin behar, planak Nafarroako Gobernuarenak idrelako.

21. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

228. artikuluko 5. apartatuko azken esaldia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak agerraldi-eskara egiten duenean ez dauka zentzurik talde parlamentarioek ihardespentxanda izatea.

22. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

228.6 artikuluko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da testua:

«Ondoren, talde parlamentario bakoitzaren ordezkariek eta talde mistoko parlamentariak, agerraldia eskatu duenetik hasita, hamar minutuz mintzatu ahalko dira, beren jarrerak argitzeko, zerbait galdetzeko edo oharren bat egiteko. Kontseilariak edo laguntzen dioten aholkulari edo funtzionarioek horiei erantzunen diete. Jarraian, agerraldia eskatu zuenak bost minutuko ihardespentxanda izanen du».

Zioak: Agerraldia eskatu zuenak soilik izan beharko luke ihardespentxanda, eztabaida gehiegi luza ez dadin.

23. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

250.1 artikuluari beste hiru letra gehitzea, honako testuarekin:

«i) Nafarroako Parlamentuan onetsitako legeen eta gainerako legegintzako ekimenen legegintza-aztarna jasotzen duten txostenak, non kronologikoki islatuko baitira proiektuak prozeduran zehar izan dituen aldaketak.

j) Bilkuraldi bakoitzaren amaieran, Osoko Bilkuraren, batzordeen eta ponentzien saioetara joan diren parlamentarien zerrenda izenduna. Parlamentari batek saio batera nahitaez joan behar bazuen baina joan ez bada, zerrenda horri erantsiko zaio nork ordeztu duen. Ordezkorik joan ez bada, parlamentariak adierazi beharko du zer dela-eta ez zen joan eta ez zuen inork ordezkatu, eta adierazpen hori ere argitaratuko da.

k) Bilkuraldi bakoitzaren amaieran, parlamentari bakoitzak jaso dituen oparien zerrenda, bai eta opari horiei zer erabilera eman zaien ere».

Zioak: Gardentasuna areagotzea.

24. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat –zazpigarrena– gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

«Zazpigarren xedapen gehigarria.

Erregelamendu honen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, transfugismo kasu bat dagoela ulertuko da baldin eta parlamentari batek, hauteskundeetarako aurkeztu zuen subjektu politikoari –alderdi politikoari, hauteskunde-koalizioari nahiz hautagaien elkarteari– traizioa eginda, handik alde egin badu, handik egotzi badute edo organo eskudunek ezarritako irizpidetik aldentzen bada.

Transfugatza hartuko da, orobat, koalizio batek sustatutako hautagai-zerrenda batean hautatua izan den parlamentaria, baldin eta hura hautagai-zerrendan sartzea proposatu zuen koalizioko alderdi politikoaren diziplinatik at gelditzen dena edo alderdi politiko horretatik egotzia izan dena, hasiera batean hura proposatu zuen alderdiaren baimenik edo tolerantziarik izan gabe koalizioko beste alderdi edo espazio batean sartzen bada ere».

Zioak: Parlamentuaren Erregelamenduan Transfugismoaren aurkako ltuna jasotzea.

